

Legazpiko Agenda 21eko Foroa

2012ko martxoaren 14ko tailerraren **akta**

Legazpiko udaletxean, arratsaldeko 18:30etik 20:00etara

Gaiak:

- 2012ko balorazioa eta 2013an Foroak izango dituen lanen planifikazioa.
- "Junetorri" zerbitzua: balorazioa eta zerbitzu berezi berriak.



2013ko urte hasieran Agenda 21eko Foroaren 3 tailer udal aurrekontua aztertzeko erabili ditugu. Horren ondoren, eta dagoeneko martxoan bagaude ere, gaurko tailerra hausnartzeko eta datozen hilabeteetan zer egingo dugun planifikatzeko erabili nahi izan dugu.

1. Helburuak:

Zehazki, 3 izan dira gaurko saioak izan dituen blokeak:



1. Tokiko Agenda 21aren bilakaeraren eta 2012an Foroak egin duen ibilbidearen **ebaluazioa**.
2. 2013rako Agenda 21eko Foroak izango duen eginkizuna **planifikatzea** eta, zehazki, egingo diren bileren planifikazioa.
3. **"Junetorri" autobusaren** gaineko hausnarketa: erabilera-datuak eta egun jakinetan zerbitzu berezia eskaintzeko proposamena.



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



2. Parte hartzaileak: tailerrean parte hartu duten pertsonak

Gaur honako hauek izan dira protagonistak:

Arantxa Arizmendi (Legazpiko Udaleko zinegotzia) • M^a Cruz Lizarazu • Eugenio Gil (Korosti zikloturistak) • Montse Vallejo • Lurdes Etxaniz (Eiluz) • Floren Gutierrez • Igor Rojo (Domingo Agirre eskolako guraso elkarte) • Xabier Baztarrika (Buskabaso elkarte) • Inma Hernandez (Legazpiko Udaleko teknikaria) Igor Urrate (Legazpiko Udaleko zinegotzia) Iciar Montejo eta Zorione Aierbe, Prometea.

Eskerrik asko, gaurkoan ere, espazio hau zuen parte hartzearekin, hausnarketekin, ideiekin eta ilusioekin bete duzuelako. Ikaragarria!

3. Gaiaz gai: landu diren edukiak

Segidan, gaurko tailerrak izan dituen 3 blokeen edukiak laburbildu ditugu.



1. Tokiko Agenda 21aren bilakaeraren eta 2012an Foroak egin duen ibilbidearen **ebaluazioa**.


Legazpik garapen iraunkorraren aldeko apustua egin du eta, bide horretan, **2008-2014 epealdirako Agenda 21eko Tokiko Ekintza-plana** du indarrean. Epe horretan iraunkortasuna lortzeko bidean aurrera egiteko esparru desberdinetan (mugikortasuna, hirigintza, energia,...) burutuko diren ekintzak jasotzen ditu planak. Era berean, planak jarduketa-esparrua ezartzen du eta zentzua ematen dio Tokiko Agenda 21eko Foroaren lanari.

Testuinguru horretan, tailerraren lehenengo zati honetan honakoak egin nahi izan ditugu:


- Legazpiko Tokiko Agenda 21eko garapen-maila zein den ezagutzea: planifikatu dugun horretatik, zenbat egin dugu? Zenbat geratzen zaigu egiteko? Zein esparrutan egin da gehiago?
- 2012an Agenda 21eko Foroak egin duen bidea gogora ekartzea eta etorkizunean hobetzeko zer egin dezakegunari buruz hausnartzea.

Laburbilduz,

- Gaur egun, Tokiko Ekintza-planaren **betetze-maila % 53koa** da, gutxi gorabehera. Ondorengo grafikoan adierazten da haren eboluzioa eta Plana osatzen duten ekintza guztien egoera:



- Planaren lerro estrategikoen arabera, garapen-maila orekatua da.



Horretatik, zein da Foroak ateratzen duen ondorioa? Esaldi batean laburtuta: **“Lan handia egin da, baina asko dago oraindik egiteko”**. Horrekin geratzen gara!

Agenda 21eko Foroari dagokionez, nola baloratzen dugu 2012an egin dugun ibilbidea?
Zer hobetu dezakegu etorkizunari begira?

- **Oroigarria:** 2012ko tailerretan honako gaiak aztertu ditugu:



- 1. tailerlean, urtarrilaren 26an: udal aurrekontuak.
- 2. tailerlean, otsailaren 23an: zaborrak Legazpin.
- 3. tailerlean, martxoaren 22an: Foroaren eginkizuna hondakinen gain.
- 4. tailerlean, apirilaren 26an: Eskola-agenda 21.
- 5. tailerlean, maiatzaren 24an: Nola murriztu gure zaborrak?
- 6. tailerlean, ekinaren 13an: Legazpi, Urrezko tak 21.
- 7. tailerlean, urriaren 4an: Irisgarritasuna + Junetorri.
- 8. tailerlean, azaroaren 8an: Irisgarritasuna.
- 9. tailerlean, abenduaren 20an: Hondakinen gaineko azterketa.

- **Balorazioa:** 2012ko Foroaren esperientziatik, zer baloratzen dugu ondo? Eta zer hobe dezakegu?



Gauza onak...

- Aberasgarria da Foroan ematen diren iritzi, ideia,... desberdinen batuketa.
- Hemen aztertzen diren gaietarako, Foroko kide batzuk Legazpin erreferente izatea lortu dugu. Horregatik, bizilagun batzuk parte hartzen ez badute ere, horiengana jotzen dute (eta haiek hona ekarri).



Hobetzeko eta aukera gisa...

- Foroan egiten den lana hobeto komunikatu behar dugu, zer den, zer gai aztertzen ditugun, nola... Agian ez pertsona gehiago forora erakartzeko, gai horiekin kezkatuta daudenak erakartzeko baizik. Iritziak eta ideia berriak jasotzeko eta baita espazioa eta bere dinamika balioesteko ere.
- Erronka Foroan interesa izan dezakeenagana joatea da, bera noiz etorriko den zain egon gabe.
- Nola? Ideia batzuk:
 - Udal Web orrian atal berri bat sartuz eta, bertan, hileko foroa egin aurretik aztertuko diren gaiak azaldu eta debatea sortu. Gai horiei buruz zurrumurrua sortuz.
 - "2012ko Foroaren memoria" izeneko liburuxka bat eginez: landu diren gaiak, parte hartu dutenen iritziak eta ekarpenak, hor esandakoa gero Udalak bultzatu eta egin dituen proiektuetan nola gauzatu diren azalduz, parte hartzaileen iritziak jasoz...

Jasota geratzen da esandako guztia eta aurrera egiten dugu.



2. 2013rako Agenda 21eko Foroak izango duen eginkizuna **planifikatzea** eta, zehazki, egingo diren bileren planifikazioa

Hausnarketa atzera begira egin eta gero, orain datozen hilabeteetan jartzen dugu arreta.

2013rako Udalak lehenetsi dituen Tokiko Ekintza-planaren ekintzen planifikazioa aintzat hartuta, **hemendik urte amaieraraino geratzen diren Agenda 21eko 5 tailerretan zein proiektu edo gai landu nahi ditugu¹?**

Galdera horri erantzun ahal izateko, Inma Hernandez teknikariak Udalak aurtien zein ekintza bultzatu nahi dituen jakinarazi digu. Eta, segidan, taldeak lehentasunen arabera finkatu ditu Foroan landu nahi dituen gaiak. Emaitza? Jarraian.

¹ 1. Eranskinean egutegi eguneratua sartu da, apirilko, maiatzeko eta ekaineko tailerren egunak aldatu egin baitira, hondakinen kudeaketari buruz apirilean garatuko den parte hartze prozesuaren ondorioz.



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztionean parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



Aurreikusitako ekintzak	Foroaren lehenetasunak?
1.2.2. Legazpiko ondare naturalaren gainean sentsibilizatzeko eta haren berri emateko ekintzak garatzea. Erreka Egunak 10 urte beteko ditu eta ospatu egin nahi dugu.	
1.5.3. Eskualdean airearen kalitateari buruz hemen dugun kezka zabaltzea eta irtenbideak bilatzea. Airearen kalitate onaren eskualde mailako plana sustatzea.	X
2.1.11. Mugikortasunari dagokionez, ohiturak aldatzeko sentsibilizatzeko: - Bizikleta: kanpainak, bizikletak aparkatzekoak ... - "Milazangoa": Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin eta ikastetxeekin elkarlanean egindako kanpaina, haurrak eskolara oinez joan daitezela bultzatzeko.	X
2.5. Eredu energetiko berri baterantz: aurrezteko estrategiak, energia eraginkortasuna eta energia berriztagarriak sustatzea. "Alkateen itunerantz zuzenduz" ekimenaren barruan 2013rako ezarritako helburuak.	X
3.1.3. "AHAL": kontsumitzaileak kontsumo arduratsua egin ahal dezala. - Bidezko Merkataritzaren aldeko Hiriaren kalifikazioa lortzea. Lantalde bat sortzea Emaus erakundearekin eta tokiko erakundeekin bidezko merkataritzako produktuak ezagutzera emateko. - Denda Berdeak: produktu ekologikoak sustatzeko kanpaina.	X
3.3.1. Hondakinak gutxiago sortzea helburu izango duten ekintzak. Harategietan jaki ontziak erabiltzeko kanpaina berria, haurtzaindegietan pixa-oihal berrerabilgarriak, jaietan edalontzi berrerabilgarriak, herria garbi mantentzeko kanpaina,.....	X
3.3.3. Hiri-hondakinen materia organikoarekin konpost egiteko plana. Auzo-konposta: guneak egokitu lursailik ez duten familiek euren materia organikoarekin konpost egiteko aukera izan dezaten.	
4.3.1. Auzoak berritzea: katalogatutako Industria-ondarea babesteko Plan Berezia egitea: San Ignazio auzoa, San Juan auzoa, Arantzazu auzoa, industriagunea,... Legazpiarra izatearen eta sentitzearen poza garatzea.	?
5.1. Eskola Agenda 21arekin harremana bultzatzea, ingurumenarekiko errespetua eta udalerrian parte hartzea bultzatzeko erreminta gisa. Gai berri bat aztertzea eta batxilergoko ikasleek Forora ekar dezatela.	
8.1.1. EKOSCAN ingurumen kudeaketarako sistema ezartzea: Udalaren eta obra lantaldearen helburu berriak.	
8.2.4. Udal administrazioan genero ikuspegia sartzeko proiektu berria.	
8.2.5. Udalaren antolaketa zeharkako edukien lanera egokitzea. Berringurumena: Tokiko Agenda 21aren kalitatea hobetzeko proiektua, departamentu desberdinen artean zeharkako lana bultzatuz.	

- **Laburtuz:** taldeak 2013an egiteko geratzen diren tailerretan ondoko gaiak lantzea lehenetsi du:

- Airearen kalitatea, mugikortasun ohiturekin lotuz.
- Kontsumo arduratsua eta hondakinak murriztea.
- Energia: adibide praktikoak, herritarrok gutxiago kontsumitu dezagun eta ohitura eraginkorrak har ditzagun.
- Eskola Agenda 21: aurten biodibertsitatea landuko da.
- Eta zalantzan: katalogatutako industria-ondarea babesteko Plan Berezia egiten denean, zer egin dezake Foroak? Lotu daiteke hori energiaren gaiarekin?

Egunak eta tailerrak, ekintzak zehaztuko diren heinean aztertuko eta zehaztuko dira.




3. "Junetorri" autobusaren gaineko hausnarketa: erabilera-datuak eta egun jakinetan zerbitzu berezia eskaintzeko proposamena.

Eta, azkenik, gaurko hirugarren gaiari heltzen diogu: "Junetorri" autobusa.

- **Zer moduz doa?** Erabilera-datuak positiboak dira:

- Zerbitzua martxan jarri denetik, 2012ko urriaren 23an, hilero zerbitzua erabili duten herritarren kopuruak hauek izan dira (ohartxo bat: lehenengo hilabetean zerbitzua doakoa izan zen):



- Horrek, batzaz beste, **eguneko 150-175 bidaiari** ematen du (gogora dezagun, bere egunean, helburu gisa 100 jarri genuela).

- **Zer moduz doa?** Erabiltzaileen iritziazi dagokionez:

- Herritarrek eta, batik bat, adineko pertsonak edo oinez ibiltzeko zailtasunak dituzten pertsonak,.... ondo baloratzen duten zerbitzua dela antzematen dugu.
- Laster, zerbitzuaren Web orria ere martxan jarriko da.



- Hobetzekorik? Zehaztasun garrantzitsu bat:
 - Markesinetan jarritako informazio-panelak beherago jartzea, errazago irakur daitezten. Edo, bi jarri, altuera desberdinetan.

- **Proposamen berria!** Zerbitzu bereziak egun jakinetan:

Udalaren eta enpresa esleipendunaren artean sinatutako zerbitzu kontratua jasota dagoenaren arabera, enpresak 1.600 kilometro eskaini ditu kosturik gabe Udalak zehaztuko dituen egun berezietarako. Zerbitzu berezia izango litzateke, kosturik gabekoa, legazpiarren onurarako.

Zentzu horretan, Udalak Ingurumen eta Garapen batzordean aztertu du gaia eta zerbitzu hori eskaintzeko egun bereziekin egutegi bat osatu du. Egutegi hori 2. Eranskinean jaso da.

Zein da gure iritzia? Aldatu edo kendu egingo genuke egunen bat?



- Foroak proposamen ona dela uste du.
- Eta egunen bat kendu egin beharko balitzateke ez dugu garbi ikusten zein,... Beraz, Udala proposatutako egun guztiak lotzen saia dadila. Eta urte bukaeran ikusiko dugu nola joan den dena eta 2014rako egun berezien egutegi zehatzagoa egin dezakegu.



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



4. Eta bukatzen dugu!

Irrifarre batekin, zuekin guztiekin espazio hau, denbora, gaiak, hausnarketak eta ezagutzak partekatzea atsegina delako; eta egunero, Legazpirekin eta legazpiarrekin duzuen konpromisoa erakusten diguzuelako.

Mila, mila esker!

¡Maiatzaren 16an ikusiko dugu elkar!



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



1. ERANSKINA: Foroaren egutegia 2013rako

ANEXO 1: Calendario del Foro para 2013

9 tailer

ENERO-URTARRILA						
L	M	M	J	V	S	D
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

Capítulo de inversiones del presupuesto municipal. Udal-aurrekontuen inbertsio-kapitulua lanketa

FEBRERO-OTSAILA						
L	M	M	J	V	S	D
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28			

MARZO-MARTXOA						
L	M	M	J	V	S	D
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

ABRIL-APIRILA						
L	M	M	J	V	S	D
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					

MAYO-MAIATZA						
L	M	M	J	V	S	D
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

AGENDA 21 ESCOLAR. Foro con chavales/as sobre el tema del curso 2012-2013: Biodiversidad. Eskolako Agenda 21 Foroa

JUNIO-EKAINA						
L	M	M	J	V	S	D
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30

JULIO-UZTAILA						
L	M	M	J	V	S	D
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

AGOSTO-ABUZTUA						
L	M	M	J	V	S	D
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

SEPTIEMBRE-IRAILA						
L	M	M	J	V	S	D
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30						

OCTUBRE-URRIA						
L	M	M	J	V	S	D
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

NOVIEMBRE-AZAROA						
L	M	M	J	V	S	D
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	

DICIEMBRE-ABENDUA						
L	M	M	J	V	S	D
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					

2. ERANSKINA: "Junetorri"ren zerbitzu berezien egutegi proposamena

ANEXO 2: Propuesta de calendario de "servicios especiales" del "Junetorri"

JUNETORRI - 2013ko zerbitzu berezien proposamena

ENERO							FEBRERO						
L	M	M	J	V	S	D	L	M	M	J	V	S	D
	1	2	3	4	5	6					1	2	3
7	8	9	10	11	12	13	4	5	6	7	8	9	10
14	15	16	17	18	19	20	11	12	13	14	15	16	17
21	22	23	24	25	26	27	18	19	20	21	22	23	24
28	29	30	31				25	26	27	28			
MARZO							ABRIL						
L	M	M	J	V	S	D	L	M	M	J	V	S	D
				1	2	3	1	2	3	4	5	6	7
4	5	6	7	8	9	10	8	9	10	11	12	13	14
11	12	13	14	15	16	17	15	16	17	18	19	20	21
18	19	20	21	22	23	24	22	23	24	25	26	27	28
25	26	27	28	29	30	31	29	30					
MAYO							JUNIO						
L	M	M	J	V	S	D	L	M	M	J	V	S	D
		1	2	3	4	5						1	2
6	7					12	3	4	5	6	7	8	9
13	14	15	16	17	18	19	10	11	12	13	14	15	16
20	21	22	23	24	25	26	17					22	23
27	28	29	30	31			24	25	26	27	28	29	30
JULIO							AGOSTO						
L	M	M	J	V	S	D	L	M	M	J	V	S	D
1	2	3	4	5	6	7				1	2	3	4
8	9	10	11	12	13	14	5	6	7	8	9	10	11
15	16	17	18	19	20	21	12	13	14	15	16	17	18
22	23	24	25	26	27	28	19	20	21	22	23	24	25
29	30	31					26	27	28	29	30	31	
SEPTIEMBRE							OCTUBRE						
L	M	M	J	V	S	D	L	M	M	J	V	S	D
						1		1	2	3	4	5	6
2	3	4	5	6	7	8	7	8	9	10	11	12	13
9	10	11	12	13	14	15	14	15	16	17	18	19	20
16	17	18	19	20	21	22	21	22	23	24	25	26	27
23	24	25	26	27	28	29	28	29	30	31			
30													
NOVIEMBRE							DICIEMBRE						
L	M	M	J	V	S	D	L	M	M	J	V	S	D
				1	2	3							1
4	5	6	7	8	9	10	2	3	4	5	6	7	8
11	12	13	14	15	16	17	9	10	11	12	13	14	15
18	19	20	21	22	23	24	16	17	18	19	20	21	22
25	26	27	28	29	30		23	24	25	26	27	28	29
							30	31					